

ARRETA PSIKOSOZIALA ETA BIOSANITARIOA KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

“Sancti Spiritus” Udalaren Zaharren Egoitzako bezeroentzako Arreta Psikosozialaren zerbitzua eta Arreta Biosanitarioaren zerbitzua ematea.

- Arreta Psikosozialaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen arreta psikologikoa eta dinamizazio soziokulturalaren zerbitzua.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Zaharren Egoitzako bezeroen errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoaren zerbitzua.

2. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Legearen 176, 177. eta 178. Artikuluetan bat etorritz, testu horren 174.e) artikuluan jasotako kasua baita.

Edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

1. Eskaintza ekonomikoa: 30 punturarte baloratuko da. Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 50 punturarte baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. (Proposamen teknikoa, Bermeoko beharrian eta errealitatearen arabera izan beharko da. Txosten honek, ekintza, esku hartze eta sare sozialarekin egingo dan koordinazioa azaltzen dauan programa zehaztua euki behar dau).
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 5 puntu, gehienez 20 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).



3.- BALIZKO PERFILAK ETA FUNTZIOAK

Kontratatu nahi dan zerbitzua emoteko aurrikusten diran balizko perfilak honeek izan daitezke:

- Arreta Psikosoziala: Arlo Psiko-Sozio-Hezitzaileagaz zerikusia daukien eta horretarako gaituak diran perfil profesionalak.
- Arreta Biosanitarioa: Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoaren arloagaz zerikusia daukien eta horretarako gaituak diran perfil profesionalak.

Kontratatu nahi dan zerbitzuaren funtzio orokorrak honakoak dira:

- Arreta Psikosoziala: Arreta Psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala:
 - Bezeroen balorazioak
 - Bezeroen PAI-ak (Plan Actuación Individual) gauzatzea
 - Txostenak gauzatzea
 - Bezeroen funtzioetan antzemandako gertakariez informatzea.
 - Jarduera psikologikoa edo antzekoa garatzen daben kanpoko beste agenteekaz koordinatzea
 - Aisialdiaren esparruan ekintza sozio-hezitzaileen bidez bezeroen garapen integrala sustatzea
 - Psikoestimulazio eta animazio soziokulturaleko teknikak garatzea bai banan banako zein talde eskuhartzeetan
 - Beraien inguruarenganako harreman positiboa jorratzeak daukan garrantziaz bezeroak motibatzea
- Arreta Biosanitarioa: Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa:
 - Agindutako errehabilitazio teknikak eta tratamenduak gauzatzea
 - Bezeroekaz talde kirol ariketak gauzatzea
 - Tratamenduen jarraipena lanak gauzatzea
 - Bezeroen egoera fisikoen gaineko gerakariez informatzea
 - Bezeroen ahalmen fisikoen balorazioak gauzatzea
 - Lan taldeagaz koordinazio batzarretan partehartzea

4. ZERBITZUA EMOTeko TOKIA

Bermeoko "Sancti Spiritus" Zaharren Udal Egoitza (Tonpoi Bide z/g)

5. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena urte batekoa da, 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra.

6. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 77.487,00 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion



zenbatekoa 6.198,96 €koa da.

Eskaintzak ordu prezioaren arabera egingo dira. Ondoren zehazten dira zerbitzu bakoitza prestatzeko beharrezko orduak eta ordu bakoitzako oinarrizko prezioa:

- Arreta Psikosoziala zerbitzua: Arreta Psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.
Kontratatuako dan zerbitzu hau era honetan bananduko da: Arreta psikologikoa eta Dinamizazio Soziokulturala jardunaldiaren bi zati bardinetan.

Ordu bakoitzako oinarrizko prezioa:

- Arreta Psikologikoa: 26,1 € orduko BEZ barik, BEZari 2,09 € dagokio.
 - Dinamizazio soziokulturala: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio.
- Arreta Biosanitarioaren zerbitzua: Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 7,5 ordu egunean, astelehenetik barikura.

Kontratatuako dan zerbitzu hau era honetan emongo da: errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa jardunaldi osoan zehar.

Ordu bakoitzako oinarrizko prezioa:

- Errehabilitazio, indarberritze eta mantentze fisikoa: 18,31 € orduko BEZ barik, BEZari 1,46 € dagokio

7. EUSKARAREN ERABILERA

Ezinbestekoa da lantaldeko Gizarte Hezitzailea euskaraz berba egiteko eta idazteko gaitasuna eta maila izatea. Zerbitzua euskaraz emotea beharrezkoa da.

Bermeon, 2013ko urriaren 3an

